

Haur Hezkuntza Lehen Zikloa eta Hezkuntza Laguntzako Espezialistak Negoziazio mahaian emaitza oso eskasak

Atzo, martxoak 14 izan zen hitzarmen negoziatioaren saio berria. Bilerak emaitza eskasa izan zuen. Hona hemen laburpena.

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa

Aurrerapen nagusia (eta bakarra) da *Kristau Eskola* eta AICE prest omen daudela kolektibo hau irakasleen taldean sartzeko. Eragin guztietarako ez bada ere, erabaki honek eragina izango du

-promozionatzeko orduan (2. zikora pasatzeko aukera bakanteak sortuz gero)

-jantokian daudenean ikasleekin, bazkaltzeko eskubidea izango dute

-urtebeteko kontratua izango dute

-urteko lanalditik ordu osagarrien kopuru bat aitortuko zaie ikasleen arretaz gain egiten dituzten funtzioengatik. Zehazkiago koordinazioa, formazioa eta familiei arreta). Proposamen zehatza apirileko negoziatio saioan aurkeztuko dute, irakasleen lanaldiaz hitz egiten dugunean.

IRALEn liberatzeko aukera izatea edo beren zerbitzuak publikoko zerrendetarako puntuatzea beren eskuetan ez bada dago ere, prest daude Administrazioari eskatzeko.

Zikloaren finantziatioaren inguruko txostenak eman zizkiguten. Horien arabera ikastetxeentzat zerbitzua da defizitarioa da. Aitzakia horrekin ez daude prest eragin ekonomikoa duten neurririk (lansariak, lanaldi murrizketa...) hartzeko. Ez dute asmorik oporren inguruan edo ordutegiei buruz hitz egiteko. Familiek eskatzen dutenaren arabera egiten dira. Beste gaia batzuk ere atera ziren (titulazioaren arabera kontratatzea, haurdunaldien bajak, altzari ergonomikoak...) baina inolako zehaztapenik gabe.

steilas-ek adierazi zuen ez genuela akordio batera iristeko aukerarik enpresak ez bazeuden eragin ekonomikoa duten neurririk hartzeko prest. Ezin dute balio estrategikoa duen zerbitzu bat eskaini langileen lan baldintzen lepoan.

Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

Etsigarria izan zen arlo honetan hitz egindakoa. Hasieratik argi gelditu zen patronalak ez duela ezagutzen langile hauen egoera, ezta egiten duten lana ere. Batetik, haientzat Espezialistena ez da kategoria doze bat eta horregatik bere urteko lanaldia egun lektiboetan elkarretaraten dute. Bestetik, Administrazioak kolektibo honentzat zehazten dituen funtzioak onartzen dituzte eta haietako bat txostenak burutzea da. Nola eta noiz egingo dituzte txosten horiek, denbora osoa ikasleekin egon behar badute?

Beraz ez zen inolako hurbilketarik izan arlo honetan eta berriro azaldu behar izan genien patronalekoei Espezialistek dituzten aldarrikapenak: berandu kontratatzen direla; lanaldiaren malgutasuna, ordu osagarriak, egonkortasun falta, antzinatasunaren eskubidea, kontratu bukaerako kalte-ordainak, euskalduntzeko duten arazoa, tresna ergonomikoen beharra...

Bestaldetik, 2017ko zorraren inguruan arazoa egon daiteke maiatzean kobratzeko, ordurako ez direlako egongo onartuta Jaurlaritzaren Aurrekontuak. Honek arazoak ekar ditzake ikastetxe askotan 2016ko zorren kantitateak kobratzea, hain zuzen ere, maiatzera atzeratu zelako.